

OSTEGUNA

2016/12/08
4 urtea, 593. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

**Datozen
asteotan
Tolosaldean ere
'Kalera kalera'
ekimenak //4**

«la mende bat hemen egonda, makina bat aldaketa bizi izan ditugu ikaztegian»

JAVI SARASOLA SARASOLA IKAZTEGIA

Ehun urteko bizitzara gerturatzen da Tolosako Sarasola Ikaztegia. Garai batean herrian hau bezalako dozena pasatxo denda bazeuden ere, gaur egun bizirauten duen bakarra da Beotibar kalean kokaturikoa //6



GASTRONOMIA GAZTETXOAK ERE TREBE

Tolosako Txuleta Festak adin guztietarako ekimenak biltzen dituenaren abididea baino ez da Sonia Tapiaren eskutik eskainitako 'Children Burger' tailerra; gaztetxoek euren sukaldari trebezia azaleratu zuten //2

Diru saririk ez baina ospea banatzen duen txapelketa amaituta

Ion Ander Izagirre Frontenis txapelketako finalak lehiatu dira; azken urteetako parte hartzerik zabalena izan da aurtengoa //3



Sari banaketako partaide guztiak frontoian bilduta. ATARIA

**Olentzerotan
Jakinminez
berritasunekin
aurtengoa**

Igandean lehenengoz egingo dute Azoka Eguna Altzon; 25 postu inguru izango dira //5

Gastronomiak ez du adinik, eta Tolosako X. Txuleta Festak haurrengana ere hurbildu nahi izan du; burger ikastaroa izan zuten, atzo eguerdian, Zerkausian.

Sukaldaritza eskala txikian

Itzea Urkizu Arsuaga

Gustuko lekuan ez omen da aldaparik, ezta erlojurik ere. Konturatzerako amaitzera baitoa, joan den asteartean hasitako X. Txuleta Festa; bazkariak biribilduko du egitasmoaren hamarkada. Laugarren otordua izango da gaurkoa, baina, egunotan, bazkari eta afariez haragoko fabrika bilakatu dute Zerkausia, adin guztietako herritarrentzat. Horrela, *Children burger* tailerra izan zen, atzo eguerdian, Sonia Tapiaren esku-tik.

Neska-mutilen begiradak ezezik, helduenak ere erakartzen zituen ikastarorako prestatutako mahai koloredunak: opiltxo gorri, berde, hori eta beltzekin atondu zuten lanerako mahaia, eta burger on bat egiteko ezinbesteko osagaiak ere elkartu zituzten.

Lotsati hasi ziren haurrak, baina beste gaztetxo bat mokadu-

txoa prestatzen ikusita animatu ziren zenbait, Sonia Tapiaren jarraibideak entzutera.

Eskuzorroak jantzi eta haragi pilotatxo bat hartzea zuten lehen egitekoa, gero haragi hori nahi adina osagai eta espezierekin biziberritzeko; gatza aukeratu zuten gehienek.

Behin haragiari grazia emanda, pilota zanpatu eta zartagira-ko prest utzi zuten. Suaren ardurara, noski, Sonia Tapiarena izan zen, eta bitartean koloretako opiltxoetatik bat aukeratu zuten haurrek, tailerrean prestatutako mokadutxoak, kaxa dotore batean bilduta, etxera eramateko.

Jatearen plazeraz gozatzearekin batera, jaki horien inguruan gehiago jakitearen plazera ere sustatu nahi izan dute hamargarren Txuleta Festan, eta txistorraren nahiz haragiaren heldutasunaren inguruko ikastaro banarekin itxi zuten, atzo, aurtengo formazio-atala. Iluntzean, berri-
z, gin tonic lehiaketarekin, festa giroan itxi zituzten erretegi erraldoiko ateak.



Haurrek kaxa prestatu zuten, sukaldariak hanburgesa zartagian egiten zuen bitartean. I. URKIZU



Jarraibide errazak eman zizkieten gaztetxoei, norbere burgerra egiteko. I.U.



Mokadutxoak egin zituzten. I.U.



Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia

EGUNA: 2016ko abenduaren 22an.
ORDUA: 18:30ean, lehenengo deialdian.
19:00etan, bigarrenengo deialdian.
TOKIA: Uzturpe Ikastolan
Egialde 2
Ibarra



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Jose Luis Rajadoren gorpuzkia aurkitu dute Santurtzin

IBARRA // Herenegun Santurtziko uretan Jose Luis Rajado Benavente *Txatarrini* iheslari ohi ibartarren gorpuzkia aurkitu zuten. Gorpua ez zuen indarkeria zantzurik eta autopsia egiten ari dira. Gorpua 08:30ak aldera ikusi zuen herritar batek ur gainean eta oraindik ez dakite zerk eragin zion heriotza.

Uzturpe ikastolaren Ohiko Batzar Nagusia, abenduaren 22an

IBARRA // Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba Elkartaren Ohiko Batzar Nagusia egingo dute abenduaren 22an. Lehen deialdia 18:30ean izango da eta bigarrena 19:00etan. Ikastolan bertan egingo dute batzarra. Bileran besteak beste, Errektore Kontseilua berrituko dute eta 2015-2016 ekitaldiko urteko kontuen kudeaketaren berri ematearekin batera 2016-2017ko aurrekontua aztertuko dute. Ikastolako kuotak, ikasturte honetako estrategia plana eta KiVa programaren berri ere emango dute.

Sokatira taldeak emakumeak erakarri nahi ditu

IBARRA // Ibarako sokatira taldeak emakumeak erakarri nahi ditu taldean parte hartzera eta hori dela eta deialdi irekia egin du. Horiek horrela, sokatira kirola probatu nahi duten guztiei astearte zein ostegunetan 20:00etatik aurrera Ibarako kiroldegira gerturatzeke gonbita egin diete. Ezin dutenek 677 09 58 64 telefono zenbakira deitu dezakete.

Jokin Altunak hiru edo lau astez atsedean hartu beharko du

AMEZKETA // Herenegungo Beotibarko partidaren izandako istripuaren ondorioz, hiru edo lau astez atsedean hartu beharko du Altuna pilotariak. Erresonantzia magnetikoak argitu duenez, II. graduako bihurritua du ezkerreko belauneko lotailuan. Aitor Mendizabal izango da denbora horretan Barriolaren bikotea. Epe horren arabera, ezingo du jokatu txapelketako hurrengo lau edo bost partidetan.

Berrobiko frontoia epeldu dute fronteniseko finalekin

Antolatzaileak gustura daude partaidetzarekin; pilotariak orokorrean, gazteak izan direla esan dute eta giro ederra izan dutela txapelketa guztian zehar

Erredakzioa Berrobi

Bukatu da azken urteetako parte hartze zabalena izan duen Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Parte hartzaileen igoera edizio borobilarekin batera etorri da gainera, izan ere, aurtun Berrobiko txapelketa ospetsuak 25. urteurrena ospatu du.

Haize fina zebilen herenegun arratsaldean, baina finalerako partidek ederki berotu zuten frontoia. Sari banaketan Aritz Eskuderok hiru bertso bota zituen eta giro ederrean eman zioten amaiera aurtengoari.

Mutiletan, binakakoan, Xabi Goikoetxea eta Ion Jauregi izan ziren garaile, eta bitarikoan Nagore Lizardi eta Xabi Zubiriak irabazi zuten. Nesketan herritarren arteko partida izan zen finalekoa eta azkenean Aran Rodas eta Mireia Lecea irabazi zuten.

SAILKAPENA

Mutilen binakakoa: Xabi Goikoetxea-Jon Jauregi / Manu Oliveira-Xabi Berasategi (30-26).

Bitariko binakakoa: Nagore Lizardi-Xabi Zubiria / Aran Rodas-Yeray Otaegi (30-26).

Nesken binakakoa: Aran Rodas-Mireia Lecea / Mirari Jauregi-Oihane Vergara (30-11)

Mutilen banakakoa: Mutilen banakakoa: Odei Arregi / Ugaitz Renobales (30-28).



Txapelketako modalitate guztietako lehen hiru sailkatuak eta antolatzaileek ateratako taldeko argazkia. ATARIA

Mutilen banakakoan Odei Arregi hirugarrenez jantzi zuen txapela. Aipagarria da ere txapelduen adina jaitsi dela aurtengoan. Edizio honetan era berean, ez dute partidaren ordua aldatzeko aukerarik eman, eta parte hartzaileek ondo erantzun dutela esan du antolatzaile lanetan ibili den Iker Elustondok.

PARTE HARTZE ZABALA

Mutiletan binaka 41 bikotek hartu dute parte, nesketan 9 bikotek, bitariko binakakoan 10 bikote lehiatu dira eta mutilen banakako txapelketan 15 partaide aritu dira. «Maila guztietako jendea izan dugu; batzuentzat irabaztea zen helburua, beste batzuentzat parte hartzea eta izan dira ere faseren bat pasatzearekin nahikoa izan dutenak. Helburuak helburu gu gustura, dena behar baitugu», esan du Elustondok.



Irabazleak gustura, herenegun. Mireia Lecea falta da argazkian. ATARIA

dok. Gaineratu duenez, giro ona izan dute txapelketa guztian bai partidetan baita txapelketari bukaera emateko Bide Ona elkartearen egindako afarian ere.

Berrobin ez dute sariekin dirurik partitzen, baina txapelketa irabazteak ematen du nolabaiteko ospea, frontenisean aski eza-guna baita Berrobikoa, eta parte hartzaileek nahikoa dute horrekin. Txapelketako lehen hiru

sailkatuek, hala ere, txapela eta kopa jaso zuten eta finalerdiatar iritsi zirenek aipatutako afaria dastatu ahal izan zuten herenegun. Era berean, finala ikustera edota jokatzera eta txapelkun izan ez direnen artean 19 bale zozkatu zituzten; Aralar Kirolakerako 30 euroko baleak, Iriarte jatetxean bazkari bat egitekoak, Osin masaje zentrokoak eta baita erosketak baleak ere.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Jose Luis Rajado
Benavente
'Txatarrini'

Ibartar iheslari ohia joan zaigu.

Une latz hauetan, Ibarako Ezker Abertzaleak bat egiten du familiaren saminarekin. Besarkadarik beroena eta animorik handiena beraientzat.

Presoak kalera atera ditzaten eskatu dute preso ohiek

‘Kalera, kalera!’ dinamikarekin bat egin eta konpromisorako eta borrokarako deia luzatu diete, horretarako ekimenak antolatu dituzte datozen asteetarako

Jon Miranda Anoeta

Presoak kalera ateratzeko «exijentzia» azaldu dute Tolosaldeko euskal preso ohiek eta jendarteari presoan alde kalera atera dadin eskatu diote, «bakea eta askatasuna irabaztera».

Arantza Karrera euskal preso ohiak azpimarratu duen gisan, *Kalera, kalera!* presoan aldeko abesti ezagunetik hartutako aha-paldia da eta «hainbat euskal belaunaldi lotzen dituen abestia, amnistia nahiz askatasunaren aldeko borrokaren ereserkia». Ahapaldiarekin batera dator sugarraren irudia, «senideen itxaropena irudikatzen duen kriselua, amnistiaren nazioarteko ikurra, bidean eroritakoen aldeko pebeteroen dolua, bakearen aldeko milaka ekintzen ikurra eta askatasunaren sinboloa».

Tolosaldeko euskal preso ohiek euren ekarpena egin eta EIPKko eta EPPKko kideak babesteko «premia» sentitu dute. «Gure ustez, herri borroka sustatzeko unea iritsi da, eta preso guztien kaleratzea zein iheslari guztien itzuleraren beharra exijitzeko unea ere bai», esan du Ibon Aranaldek bertan bildutakoen izenean.

Iragana den gatazka armatuaren ondorioak gainditzeko «inolako mugimendurik gabeko» bost urte izan direla nabarmendu dute Anoetako Mikelasagasti auditoriora gerturatutako preso ohiek. «Preso politikoen gaia da nabarmenena eta aurrera egin ordez, atzera egin da», esan dute.



Tolosaldeko preso ohiek agerraldia egin zuten astelehenean Anoetako Mikelasagasti auditorioan. JON MIRANDA

«Ezartzen den espetxe legedia salbuespenean, neurrigabeke-rian eta mendekuan oinarrituta dago».

Aranalderen hitzetan, «*Kalera, kalera!* ekimen, aukera eta salto kualitatiboa da». Sakabana-keta, larri gaixo dauden presoan egoera eta giza eskubideen urratzeak aipatu ditu, «horiek salatzeko eskaeren ideia osagarri bat izan behar du dinamikak, gehiengo sindikal, politiko edota erakundeek antolatutako ekimenen osagarri».

Argi adierazi du Karrerak: «*Kalera, kalera!* Euskal Herrian egin den borrokaren kontsigna izan da eta denak atera arte, kontsigna izaten jarraitu behar du. Espetxea eta erbestea ezagutu dugunok argi utzi nahi dugu ez

goazela etxera. Kalera goaz borrokan jarraitzera». Eta dei berbera egin diete amnistia, bakea eta askatasunaren alde urte luze-etan lan egin duten milaka herri-tarrei. «Presoak kalera atera nahi ditugu askatasuna lor dezaten, eta kalean, gure aldamenean borrokan jarrai dezaten bakea eta askatasuna irabazteko».

Abenduaren 10etik urtarrila-ren 8ra dinamika bikoitza izango da: alde batetik, Usurbilen itxialdia egingo dute, eta *Kalera*gunea esparruan jarduera ugari antolatuko dituzte; beste alde batetik, herri eta auzoetan dinamika deszentralizatua ere antolatuko dute, jarduera eta mobilizazio askorekin, Usurbilen egingo denaren osagarri. Tolosaldean ere antolatu dira ekimenak.

MOBILIZAZIOAK

ABENDUAK 10, LARUNBATA

16:00. Usabal kiroldegitik, Usurbilen irekiko den Kalera gunera kotxe karabana.

ABENDUAK 17, LARUNBATA

Anoeta eta Ibarra. Kalera egunak antolatuko dituzte.

ABENDUAK 24, LARUNBATA

Tolosaldea. Herriz herri argazki herri-tarrak.

URTARRILAK 6, OSTIRALA

18:00. Haizearen Orrazian, ekimen nazionala.

ABENDUAK 16, 23 ETA 30

20:00. Manifestazio argitsuak Villabonan.

Itxuraingo sailen inguruko bilera irekia, bihar

ALKIZA // Alkizako Udalak egin du biltzeko deia, bihar ostirala, 21:00etan Don Juanena etxean. Baserritarrak, nekazaritza eta abeltzaintza lanetan jarduten direnak eta oro har, interesa dutenak daude gonbidatuta. Itxurain inguruan prestatu diren sailetan ganadua larrean jartzeko interesa eta aukerak aztertu eta antolatzea da helburua eta larre sailetan planteatu daitezkeen beste ekimenak eta hobekuntzak aztertzea.

Maskulinitate tailerra izango da Villabonako gaztetxean

AMASA-VILLABONA // Larunbatean, abenduak 10, 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo dute, «maskulinitate hegemoni-koa kuestionatu eta deseraikuntza prozesuari ekiteko». Femenismoa, genero bereizketak sortzen dituen pribilegioak eta espazio ez mistoen zergatia ulertzeko antolatu du Onddo gazte asanbladak larunbateko tailerra. Gaztetxean egingo dute.

‘Enneco, haritzaren memoria’ proiektua aurkeztuko dute

ANOETA // Astelehenean, abenduak 12, 19:00etan udal areto nagusian Nafarroako erreinua-ren historia berreskuratu eta ezagutarazteko helburua duen proiektuaren aurkezpena egingo dute Nafarroa Bizirik fundazio-ko kideek. Bestalde, hilaren 16ra arte, Anoetako liburutegian, erakusketa jarriko dute gai honen inguruan. Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 19:30ra ikusi ahal izango da eta astelehen eta asteazkenetan, goizez ere bai, 11:00etatik 13:30ra.



**Oparitarako
ideiarik
behar?**



atarikide bazara, **oparitu** iezaiozu urtebeteko harpidetza %15eko deskontuarekin (62€) zuk nahi duzunari eta **jaso zuzeneko oparia** Marques de Bergara kaxa bat

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm
Informa zaitez:
943 65 56 95
edo
atarikide@ataria.eus

elosegi
ARDOZTEGIAK
Polig., 201- Harizti3
2012 OLABERRIA
Tel.: 943 88 09 79

Urteko batzarrera etxetik pertsona bana joateko eskaria

Ahal den herritar gehienak parte hartzeko eskatu du udalak; igande honetan izango da batzarra, 11:00etan hasita

Imanol Garcia Landa Orendain

«Helburua da etxe bakoitzetik norbait azaltzea urteko batzarrera. Askotan aldarrikatzen dugu erakunde publikoak irekita egon behar dutela parte hartzeko. Aldarrikatzea erraza da, baina gero aldarrikatzen duzun horrekin koherente izateko, behintzat aukera dagoenean parte hartu beharko genuke». Gorka Egia Orendaingo alkateak hitz horiekin egin die deialdia herritarrei igandean, abenduak 11, udaletxeko areto nagusian egingo den urteko batzarrera. 11:00etan hasiko da batzarra, eta ondoren, hamaitakoa izango da bertan, Ostatuak eskainia.

Egiak gaineratu duenez, batzarraren helburua «urtean behin udalean zer diru mugi-

mendu egon den, zer gertatu den, udalaren martxa egokia dela, ez dagoela egin behar ez denik, eta zalantzak argitzea» da. «Denon dirua dela kontuan hartuta, ezinbestekoa iruditzen zait horrelako jarraipen bat egitea udalean gertatzen denarekin».

Batzarraren aurretik egiten den galdetegian 16 urtetik gorako herritarren %85ek bete duela nabarmendu du Egiak. «Urtero ditugu horrelako datuak. Galdetegiaren bidez herrian egiten dena herritarren gehiengo nagusi batek aukeratutakoa dela esatea lortu dugun bezala, gustatuko litzaiguke urteko batzar horrek halako portzentajeak lortzea».

Herri batzarrak hainbat atal ditu. Lehenengoan, 2017ko aurrekontuak aurkeztuko dira, gal-



Azken auzolanean baserrien izenen kartelak berritu dituzte. ATARIA

detegian jasotakoa kontuan hartuz osatzen direnak. Bigarrenen 2016ko aurrekontuen balizko itxiera bat planteatzen da, hau da, nola bukatuko den, zer gastatu den eta zer diru laguntzak

izan diren. «Hirugarrenengo atalean egiten dena da aurreko parte hartze prozesuetan erabaki zena zertan datzan azaldu», esan du alkateak. «Esaterako, gimnasioa egitea eskatu zen, bada aurten gimnasioa eginda egongo dela azalduko da. Beraz, zer egin dugun aurten azalduko da eta zer dagoen egiteko herritarrek eman dituzten erantzunen arabera. Horrez gain, datorren urtera begira zer egiteko aukera dagoen esango da».

Aurten ere galdetegia herritarrek koordinatzeko erabili dela gaineratu du Egiak: «Gauza pila bat egin daitezke herrian dirurik gabe. Askotan, gure saiakera da behintzat parte hartze prozesuetan azaltzen diren proposamenak ez izatea bakarrik gauzak egiteko, baita ere gizarte perspektiba irekitzea, eta balioetan oinarritutako proposamenak jasotzea. Horri begira halako galdetegi bat pasa diegu herritarrei eta horren emaitzak ere komen-

tatuko ditugu: autoa elkarbanatzeko egitasmoa, denboraren bankua aurkeztea...».

AUZOLANA

Batzarraren azken partean hurrengo urteko auzolanen proposamenak aurkezteko dira, eta batzarrera joaten direnen artean auzolanen batean edo bestean parte hartzeko konpromisoa egiteko. Azkeneko auzolana orain gutxi egin dute Orendainen. Egiak azaldu duenez, «urtero saiatzen gara behin edo bitan auzolana antolatzen. Azkeneko honen oso gustura gaude, 23 pertsona izan ginen parte hartzen, gure ahaleginarekin herriaren alde zerbait egiteko, eta uste dut eskertu behar zaiela etorri ziren guztiei. Etorri ez zirenei animatu hurrengoan parte hartzera, herriarentzako gauzak egiteko biltzea ezinbestekoa delako urtean behin konpromisoa izateko bizi diren leku eta eremuarekiko».

Azkeneko auzolanean, bate-tik, baserrietako izenekin dau-den kartelak berritzen aritu dira. Bestalde, martxan jarri dute kanpaina bat herrian, jendeak zaborra lurrera bota ez dezan. Mezu hori adierazteko kartel batzuk jarri zituzten.

Estreinako Azoka Eguna, igandean

Olentzerotan Jakinminez ekimenaren bigarren ekitaldia izango da azoka; argazki rallyan 25 parte hartzaile izan dira

I. Garcia Landa Altzo

Bi berritasun ditu aurten 20. edizioa betetzen duen Olentzerotan Jakinminez kultur egitasmoak. Horietako bat aurreko igandean egin zen, argazki rallya, eta bigarrena igande honetan, abenduak 11, egingo da: Azoka Eguna. Antton Iztueta Kultura Batzordeko kideak azaldu duenez, «25 postu inguru izango dira. Dozena erdi bat herrikoak izango dira, eta gero gonbidatuek ere parte hartuko dute».

Azoka plazan egingo da, eguraldiak lagunduz gero, bestela frontoian egingo da. Barazkiez gain, hainbat produktu ikusteko,

erosteko, eta dastatzeko izango dira. «Herrian ere artisauak badiugu eta horiek ere jarriko dituzte beraien lanak ikusgai», esan du Iztuetak.

Olentzerotan Jakinminez ekimeneko beste ekitaldiak datorren astean izango dira. Batetik, sagardoari buruzko solasaldia eta dastatzea izango da. Sagardogileen Elkarteko koordinatzailea den Unai Agirre izango da Elordi elkartearen. Altxoko zenbait etxe eta baserrietan egiten den sagardoa dastatzeko aukera izango da. Sagardoa dastatzen laguntzeko mokadutxoak ere egongo dira.

Bestetik, ohiko musika ema-

naldia izango da Loatzo musika eskolako ikasleen eskutik. Horrez gain, Interneti buruz hitzaldia emango du Mikel Etxarri Jakintza Ikastolako irakasleak. Gazteei zuzendutako solasaldia da, baina gurasoentzat ere interesgarria izango da.

Abenduaren 17an izango da azken eguna, eta bertan haurrei zuzendutako emanaldi bat izango da, *Olentzero eta bere lagunak* izeneko, eta mitologiaren inguruan ariko dira. Eta ekimena ohiko beste ekitaldi batekin bukatuko da, talo jatearekin. Jende asko elkartzeko da egun horretan Elordi elkartearen. Izena emateko txartelak udaletxean edota Elordi el-

kartearen erosi daitezke, eta azken eguna hilaren 15a izango da.

BALANTZE ONA

Aurreko igandean egin zen argazki rallya «nahiko ondo» joan zela azaldu du Iztuetak. 25 parte hartzaile izan ziren bi mailak kontuan hartuta. «Zerbait berria egin nahi genuen, eta argazki rallya egitea pentsatu genuen», esan du Iztuetak. «Lehenengo aldia izan da eta horrelakoetan ez dakizu zenbat jende azalduko den. 25 lagun elkartzeko izan, ia denak herrikoak, eta alde horretatik gustura gaude». Honakoak izan ziren rallyaren gaiak: bideak, langak,



I. Argazki Rallyko zenbait parte hartzaile, izena emateko unean. A. IZTUETA

EGITARAUA

Abenduak 11, igandea

10:00–14:00. Azoka Eguna egingo da plazan. Eguraldi txarrarekin, frontoian.

Abenduak 15, osteguna

19:30. *Sagardoaren txinpartaren gazi-goza* solasaldia eta sagardo dastatzea, Unai Agirrerekin. Elordi elkartearen.

Abenduak 16, ostirala

18:00. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia, elizan.

19:30. Interneti buruzko solasaldia Mikel Etxarri irakaslearekin, udaletxeko batzar eta ekintza aretoan.

Abenduak 17, larunbata

16:30. *Olentzero eta bere lagunak* emanaldia, Kikili Saldaren eskutik. Udaletxeko ganbaran.

20:00. Talo jatea, Elordi elkartearen. Haur eta gaztetxoak lehenbizi. 21:00etan, gazte eta helduak.

Amalurraren koloreak eta emozioak. Maila bakoitzeko bi sari izango dira. Oraindik ez da zehaztu noiz izango den sari banaketa, hori bai, aurkeztu diren lanekin erakusketaren bat egitea aurreikusten dute.

«la 100 urte egin ditugu hemen, nire birraitonak irekitakoa da ikaztegia»

JAVI SARASOLA SARASOLA IKAZTEGIA

Garai bateko denda horietako bat da Sarasola Ikaztegia, Tolosan egondako hamalau ikaztegietatik geratzen den bakarra. Harri ikatza saltzen bazen sorreran, egun egur ikatzari esker bizirauten dute.

Josu Ozaita

Badira xarma berezia duten dendak, *betikoak* bilakatzean, inongo obrarik behar ez dutenak. Sartu eta historia usaintzen dugunak, begiratu eta dozenaka istorio kontatzen dituzten paretak. Horietakoa dugu: Sarasola Ikaztegia. Baskula zahar bat, ikatz zakuak, aspaldiko dekorazioa, eta pareta txurietan ikatz hautsen kapa fin beltzak, elkarren gainean. 90 urtetik gora irekita, gutxi, oso gutxi dira hori esan dezaketen dendak. Ez du obrarik egin urte hauetan, ezta beharrik ere. Zein dekoratzailek lortuko du halako giro autentikoa?

Gaur 3 gradu markatzen ditu termometroak, hotz da kale hutsetan, hala ere telefonoa ixilik da ikaztegian. Jada ez du inork deitzen etxea berotzeko ikatza eskatzen, orain parriletako haragiak berotzeko da ikatza. Aldaketen testigu da ikaztegia. Aitona bizikleta eta gurditxoarekin ibiltzen zen ikatza banatzen etxez etxe, Tolosan zeuden beste hamahiru ikaztegien antzera. Gaur berak baino ez du bizirauten. Lehen trenean ikatza etorri eta idi gurdiekin eramaten zuten Beotibar kaleko biltegira, han ikatz mendia egin eta jendeak etxetik eramandako zakuak betez saltzen zuten erregaia.

Bere birraitona etxegileari ikatzez ordaindu zioten hainbatek, azkenean ikaztegia ireki zuen arte. Eta han jarraitzen du bere oinordeko den Javi Sarasolak. Izan du aukera Amarotzeko pabiloietako beste eraikin erosoago batera lekualdatzeko, hala ere, bera pozik dago Beotibar kalean, Euskal Herria plazaren sarreran. Xarmak erakargarritasuna du, mende oso bat bertan egiteko adinakoa.


Belaunaldi asko igaro dira hemendik, zuhaitz genealogiko zabala bertan lanean. Zein aldaketa eman dira?

Ia mende bat hemen egonda, makina bat aldaketa bizi izan ditugu. Aipagarriena ikatza beraren erabilpena litzateke: lehen izugarri erabiltzen zen sukaldeko ekonomiketan, etxea berotzeko lehengai erabilienean zen. Nolanahi ere, 80. hamarkadan gasa sartu zen Tolosan eta aldaketak etorri ziren. Pentsa! Tolosan 14 ikaztegi zeuden!

«80. hamarkadan gasa sartu zen Tolosan eta aldaketak etorri ziren. Pentsa! Tolosan 14 ikaztegi zeuden!»

Hamalau?

Bai, hala da nire amaren kalkulu arabera. Etxe gehienetan harri ikatza erabiltzen zen etxea berotzeko, honek denbora luzez iraun eta bero goxoa ematen duelako. Gaur, aldiz, lauzpabost etxe soilik egongo dira ikatza eramateko deitzen didatenak.



Baskula denda erdian ikus daiteke. J. OZAITA

Lauzpabost etxeen deietatik bizitzera zaila honenbestez.

Ezinezkoa! Harri ikatzatik egur-ikatzatik bizitzera igaro gara. Orain saltzen dugun ia guztia, egur-ikatz da.

Egur-ikatz parriletarako?

Bai, hori da. Ostalariekin egiten dugu lan asko: erretegiak, sagardotegiak, jatetxeak... eta baita herrietako elkarte gastronomikoekin ere. Udan, berriz, nabaritzen da jendearen parriladak egiteko ohituraren eragina.

Oraindik bada lana orduan!

Ikatz mota honi esker, bai. Beste tik zaku gutxi izaten ditut. Egur ikatzatik bizi garela esan dezakegu gaur egun. Ikatz mota bat jais ten ari zelarik, igo zen bestea, eta hala orekatu ditugu kontuak. Ni hasi nintzenean ez zuten egur ikatza saltzen, harri ikatza soilik. Orain, aldiz, alderantziz: ia ez dut harri ikatzik, ezta saltzeko ere. Begira, hor dauden bost zaku horiek soilik, Alde Zaharretik oraindik deitzen didaten aiton-amonentzat. Alde ona ere topatu diot honi: lehen eskailetan gora eta behera ibiltzen nintzen zakua bizkarrean, gaur, aldiz, ez dut hala ibili beharrik,

erretegiak kaleko solairuetan daudelako.

Etorkizuna hortik bideratuko da orduan, erretegietatik.

Tolosan txuleta eta erretegiak modan daudenez, izango da ikatz beharra.

Txuleta erretzean ikatzak ere eragina izango du.

Noski, dezente. Ikatza zein egurrekin eginga dagoen, baita ikatz horren indarra eta iraupenak ere. Indar handia izatea komeni da, haragia ondo egin dezan. Kalitate desberdinak daude hemen ere: nolako ikatza, halako erreketak.

Nondik dator zure ikatza?

Orain arte Salamanca eta Extremaduratik ekartzen nuen, exina egurrarekin eginikoa. Jada ez da askorik geratzen. Azkenaldian, ordea, Argentina eta Kubatik ekartzen dut. Begira! Hor dagoen ikatz guzti hori kubatarra da, bertako landare inbaditzaile batekin eginikoa: Marabu deitzen diote bertan.

Kubatik orduan.

Oso gustura nago ikatz honekin: denboran luze irauten du eta indarra du. Lurrin onekoa.

Lehen txondorrek ere egiten omen ziren hemen.

Nik ez dut ezagutu hori, nolahi ere egia da hori, hemen ere ikatz asko egiten zen trenentzako eta. Nire izebak ere kontatu

izan zidan taxi gidari bat etortzen zela ikatza hartzera bere kotxearentzako. Portutik Madrilera arraina eramaten omen zuen. Baina hauek duela 70 urteko kontuak dira...

Orain furgonetarekin ibiliko zara banaketan. Zure aurrekoak?

Aitona bizikleta eta gurditxoarekin ibiltzen zen hara eta hona, ni berriz furgonetan.

Parrilada egiteko gogoa pizten ari zait. Gomendiorik?

Denbora hartzea da garrantzitsua, halako lanak patxadarekin egitea. Ez da gomendagarria ikatza pizteko haizagailu eta hauspoak erabiltzea. Piztu, eta utzi ikatzari poliki pizten. Denean bezala hemen ere maitasun pixka bat jarri behar da. Pastilaxo horiek ere erabili daitezke.

Pastila horiek ez dute gero haragiaren zaporea aldatzen?

Lehen agian usaina bazuten, gaurkoak jada nahiko onak dira. Ez dago arazorik.

Egun hauen bueltan, laster izango duzu Olentzeroren bisita.

Etortzen dira batzuetan bai. [Barreak]. Gurasoek ere ez dakite zer den askotan ikatza. Nik esaten diet: «Ez utzi jaten behintzat, ea hortzaren bat hautsi behar duten!». Bada oraindik ikatza oparitzearen ohitura.



JOSU OZAITA

Denboraldi eta kolore berria, eskualdeko zenbait arraunlarirentzat

Kantauriko traineruen lehia hasia da lehorreko entrenamenduetan eta, neguko lanekin batera, fitxaketa eta aldaketak iristen dira arraunera

Itzea Urkizu Arsuaga

Tolosaldetik urrun ikusten da arraun denboraldiaren hasiera, baina, antzinako arrantzaleen jardunetik sortutako kirolak, hila beteko etenaldia baino ez du izaten; udako lorien atzean, neguan ondo egindako sukalde-lanak izaten dira.

Sukaldekoak, bai, lehen asteetan lana aterpean egiten baitute arraunlariek. Hilabete bada ergometroak dantzan jarri zituztela, baina, gimnasioetako mugimenduekin batera hasi dira, tosetako joan-etorriak ere.

Izan ere, arraunak udazkenean hartzen du futbolaren antza gehien, zurrumurru, azken orduko fitxaketa eta irati-kateei eskainitako lehen adierazpenak tarteko. Eta, eskualdeko arraunlariak ez dira lerroburu-sorta horietatik kanpo geratu, aurten ere. Batzuk hara, besteak hona; lehendik jantzi izandako elastikoaren azpira zenbait, eta kolore berri batekin proba egitera, beste asko. Edo, besterik gabe, lehorre-ra.


Kantauriko traineruen hamalaukoak ez dira, ordea, 2017ak ekarriko dituen nobedade baka-rrak izango: ligak berak ere izena aldatuko du. Urteak dira TKE ligak San Migel izena hartu zuela, baina babesle nagusiak bigarren lerrora pasatzea erabaki du, eta datorren denboraldiko koroa preziatuak beste izen bat izango du.

Oraindik ere iritsiko da informazio-olatu berriren bat, baina, besteak beste, honakoak dira hurrengo denboraldiak ekarriko dituen berrikuntzak, Tolosaldeko arraunlarien eskutik.

OLATU GAINETIK, LEHORREKO BARERA

Urtetan TKE ligako gain-gainean aritu eta gero, Iñigo Jauregi tolosarrak (1989) *Ama Guadalupekoa* trainerua utzi du 2016-2017 denboraldian, azaro erdialdean jakinarazi zutenaren arabera.

Gaztetasunak ez dio ibilbide oparorik lapurtzen, Jauregi 2005az geroztik aritu izan baita,



Iñigo Jauregi 'Ama Guadalupekoa' trainerua utzi du, 2016ko denboraldia bikain biribildu eta gero. Irudian, Jauregi 2015. urteko Kontxako estropadan. MIKEL IRAOLA

tostaz tostakoan. Tolosaldeko Arraun Klubean ekindako bideari Orio Arraunketa Elkartean jarraitu zion, 2008tik 2010era bitarte, bigarren traineruan. 2011.

Estibaliz Segurola tolosarra San Juango batelarekin ari da denboraldia prestatzen

2009an arrauna utzi eta gero, Joseba Larrarte billabonatarra Kaikun ariko da aurten

urtean, berriz, Zierbenako traineruan hasi zen, eta 2012an eman zuen ligarik gorenerako jauzia, talde berberarekin.

Talde bizkaitarrean denboraldi bat gehiago eginda, 2014. urtean iritsi zen, Iñigo Jauregi, Mikel Orbañanosen taldera. Bertan eskuratu ditu arraunlari batek eskura ditzakeen lorpenik garran-

tzitsuenak: besteak beste, 2014ko eta 2015eko San Migel ligako koroa, eta horrek atzean daramatzan bandera guztiak.

BERDETIK ARROSARA

Hondarribia utzi batek, eta Hondarribiara iritsi bestea, Endika Lopez (Tolosa, 1991) izango baita talde berdeko berrikuntzetako bat.

Jauregiaren bide beretik, Lopezek ere TAKen eman zituen bere lehen paladak, 2008an, eta 2010. urtean Orioko tostetan hasi zen, itsaso zabalean trebatzen. Azken bi urteak, ordea, Pasaia aldean eman ditu, San Juango *Erreka* traineruan.

ETA, ARROSATIK BERDERA

Hasi berri duten denboraldian, Endika Lopezen aurkako bidea egin du, hain justu, Estibaliz Segurola tolosarrak (1990). Hondarribiako trainerua utzi, eta San Juango *Batelerak* ontzian ari da neguko prestakuntza lanetan.

Tolosarra iaz hasi zen tostakoan, Hondarribiak emakumezkoen trainerua berreskuratzearekin batera –2013az geroztik ez zuten uretaratu–. Ez zuten Euskotren ligan sartzerik lortu, baina Gipuzkoako ligan lehiatu ziren.

KORTAREN UBERAN

San Pedroko *Libian* aritu zen, beste hiru billabonatarrekin ba-

tera, baina 2009az geroztik ez zuen arraunik toletan kateatu.

Arraunaren harrak, ordea, erraz bizirauten du urteen joanaren aurrean, eta Joseba Larrarte (Villabona, 1978) berriro ontziratuko da, handienen alboan aritzeko. Kaikun hasi du entrenamendu denboraldia, eta Kortaren uberan zaildu beharko ditu, berriro, aspaldi ikasitakoak.

ataria DISEINATZAILE GRAFIKOA BEHAR DU

BEHARREZKOA

- Diseinu grafikoaren inguruko ikasketak izatea.
- QuarkXPress, Illustrator eta Photoshop programa informatikoak menderatzea.
- Euskalduna.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- Bi urteko lan utzialdia betetzeko da.
- Egunkariaren zierrearen ardura.
- Maketatzailerak eta produkzio editorea.

Interesatuak bidali ditzala curriculumak, aurkezpen-gutuna, portfolio digitala eta bestelako jakingarriak tkt@ataria.eus helbidera abenduaren 18a baino lehen.

ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm
San Esteban 20, 20400 TOLOSA
943-65 56 95 • tkt@ataria.eus



OSTEGUNA, 2016KO ABENDUAK 8
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 08

AGENDA

Deialdiak

Larraul. Binilozko euskal diskoak, erakusketa. Larraulgo Ekomuseoan binilozko diskoak ikusgai, entzungai eta dantzagai egongo dira.

Tolosa. Txuleta Festaren Festa.

11:00. Zesta puntako II. Elola Memorialaren finala, Beotibar pilotalekuan.

12:30. Kaskeria, itzulera mahaletara hitzaldia Batean-eko Imanol Zubelzuren eskutik, Zerkausion.

13:30. La Vermuteriataillerra, Zerkausion.

13:30. Udal Txistulari Bandaren kontzertua, udaletxeko aterpean.

Tolosa. Bonberenea Encounter. Bonberenearen 19. urteurrenaren ospakizunetan Bonberenea Encounter ospatuko dute.

Tolosa. El techo del mundo. Haur zinema gaztelaraz. Leidor antzokian, 17:00etan.

Tolosa. Dr. Strange filmea. 19:30ean, Leidorren.

Tolosa. Ba al goaz aurrera? Emakume eta neskatzen eskubideak, erakusketa. Amnistia Internacional elkarteak jarritako erakusketa. Aranburu jauregian.

Tolosa. Yase Taman-en txotxongi-loen erakusketa. Topic-en ikusgai dago.

Zizurkil. El despertar de la feminidad, erakusketa. Gotzon Hiegun artistaren taila eta eskultura erakusketa. Plazida Otaño liburutegian.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan zehar. Euskal musika izango da entzungai.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 670648.

Gauekoa. Morant Barber, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

GAUR



13° / 7°

BIHAR



14° / 6°

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20
Tolosa

Emakume Pilotariko finalak erabakita

Abenduaren 17an jokatuko dira finalak Tolosako pilotalekuan; eskualdeko bost pilotari izango dira lehian

Erredakzioa

Iragarri bezala, larunbatean jokatu ziren Donostian Gipuzkoako Emakume Pilotari txapelketa finalaurreak. Hiru partida jokatu ondoren, erabakita geratu ziren abenduaren 17an Tolosan jokatu diren finalak, eta Tolosaldeko bost pilotari izango dira tartean: lehen mailan, Garmendia-Eizmendik Otaegi-Mendizabal izango dituzte aurrez aurre; bigarrenetan, Rodas-Arrillaga eta Otaegi-Erasun lehiatuko dira.

Lehen mailako partida izan zen gogorrena. Otaegi asteasuarra eta Mendizabal anoetarra Goikoetxea-Arrieta bikote hernaniarren aurka lehiatu ziren. Mendizabal, azken urte askotan arrasto bikaina uzten ari den pilotari beteranoa, eta Arrieta gaztea dira modalitateko atzelari onenak; hauen arteko gorabeheraren baitan joan zen partida: hasieran Arrietak agindu zuen eta Goikoetxea aurrelariak bere abilezia erakutsi ahal izan zuen; Mendizabalek neurria hartu ahala partida estutzen joan zen, aurrelari asteasuarra ere bere aukerak izaten hasi zen eta tantoak batera zein bestera erortzen joan ziren ia amaiera arte. Azkenean 30-27 irabazi zuten Tolosaldekoek eta finala jokatu dute Aina



Mendizabal emakume pilotari txapelketan lehian. ATARIA

hoa Garmendia alegiarra eta Eizmendi aiarraren aurka.

Bigarren mailako partidak irabazle garbiak izan zituzten. Lehenean Rodas (Berrobi) eta Arrillagak 30-18 irabazi zieten Galdos-Beldarraini; Arrillagak diferentzia handia jarri zuen atzeko koadroetan eta Galdosek ez zuen jokoan sartzeko ia aukerarik eduki. Eta antzekoa gertatu

zen azkeneko partidaren ere. Otaegi-Erasunek 30-18 irabazi zieten Senperena-San Sebastiani: partida erdira arte Senperenak nahikoa ondo eutsi bazion ere, Erasun zizurkildarrak agindu zuen partidaren eta ondo aprobetxatu zituen Otaegik bere erremate aukera; San Sebastianek defentsa lanean jardun behar izan zuen batik bat.

makrobiotika bidalaria
solasaldia eguraldia
ataria iluna kokondo
(h)ari naizela azoka
hauspoartean
entzuteko jaleak

ataria
irratia
107.6 fm
www.ataria.eus



albisteak lehiaketa
kantazgora! artea
pasahitza errezeta
ekokultura kalekantoitiki
eutsigolaria! zebrabidea
psikologoa hamaiketako